

LAU URTEKO MEMORIA

Orquesta de Euskadi S.A.

2017/2020

Memoria hau Kultur Sailan izandako ordezkapenaren ondoren eta Euskadiko Orkestraren Administrazio-kontseiluaren Presidentziak eskatuta egin da, zeinari Zuzendaritza Orokor honen erronkak aurkeztu zaizkion, 2014ko abuztuan nire gain hartu nuen postuan bizitako esperientzien ondorioz. Berriz ere, presentzia sozialari, kalitate artistikoari eta kanpo-proiektzio eta egonkortasun ekonomikoari dagokienez, aurreko Zuzendariak ekin zuten argumentuen egiturei eutsi diegu. Orkestrak maila ona du, baina, egia da, goi-mailako formazio sinfoniko gehienek bezala, ezinbestekoa da haien ekonomia nahikotasuna etengabe defendatzea eta hobekuntza artistikoa lortzeko etengabe jardutea.

Aurreko txostenetan bezala, arlo orokor hauekin jarraituko dugu:

- 1- Arlo artistiko eta musikala
- 2- Antolaketa-enpresa arloa
- 3- Berrikuntza-Proiektzioa

1- Arlo artistikoa eta musikala

2017-2018 denboralditik aurrera, Robert Treviño Maisu iparramerikarrak hartuko du EOSren Zuzendaritza Titularra izatearen ardura, Administrazio Kontseiluaren adostasunaren ondorioz eta EOSren Batzorde Artistikoaren abalarekin Zuzendaritza Orokor honek izendatuta. Gertakizun hori da, berez, arlo honetako aipagarriena, haren gainean eroriko baita etengabeko hobekuntza eta berriazko orkestra soinu bat sortzearen; zuzendaritzak, musika-denboraldien Zuzendari Orokorrarekin batera, zuzendarien, bakarlarien eta aurkeztuko diren programen inguruko erabakiak hartzearen; eta kanpo-proiektzioan eta Orkestraren ikuspegi berri eta modernoan parte-hartze aktiboaren ardura ere. Ildo horretan, soinuaz eta egonkortasun eta hazkuntza artistikoaz arduratuko den

zuzendari bat jarraitzen dugu, kasu honetan hurrengo hiru denboraldietarako, zeina beste denboraldi batez areago daitekeen, 2017-2018 denboralditik aurrera, eta 10 astez denboraldi bakoitzeko (5 abonuprograma). Duela hiru hile, eta oro har haren lana 2017ko abuztuaren 1ean hasi behar bazuen ere kontratuaren arabera, EOSren atzerriko proiektioan ari gara lanean Zuzendaritza Orokorrarekin eta Orkestraren talde teknikoarekin koordinatuta, hurrengo lau urteotan arlo bakoitzeko lan sakona egitea, profil egokia duten hainbat zuzendari gonbidatuta eta grabazioen politika handi nahia eta nazioarteko presentziaren bitartez. Maisu honi eskatu zaio programazio interesgarria eskaintzeaz arduratzea eta zuzendaritzaren alderdi guztiekin konpromisoa hartzea Hitzarmen Kolektiboak bildutako ikuspegi artistikotik abiatuta, zeinak erantzukizunak emateaz gain, orkestra hobetzeko tresnak ere ematen dizkion. Aldaketa garai honetan, guztik adostu dugu 2017-2018 denboraldirako azken urteotan Andrey Boreyko izan den Zuzendari Gonbidatuaren irudia ez edukitzea.

Orkestrak maila hobea du urtez urte, eta denboraldiak interesgarriak dira Euskal Herriko ikusleentzat, zeina orkestrarekiko leial jarraitzen duen izaten. Abonu-zikloaren eraginari dagokionez, publizitate eta sustapen ekintzek abonatuaren jaitiera txiki bat eragin dute Bilboko abonatuaren kopuruan. Oro har, saldu diren ia 7.000 abonuek eta urtero entzuten gaituzten 150.000 lagun inguruk orkestren buruan jartzen gaituzte Estatu mailan. Hori guztia dela eta, eta EOSren jardueren antzerakoak eskaintzen dituzten jarduerak areagotzen ari direla ikusita, lau-urteko honetarako 10 abonuko eskaintza aurkeztea erabaki dugu (2016an 11 izan ziren), zeinak proiektu deigarriak izango dituzten, gainerakoetatik nabarmendu eta gure orkestrari izaera berezia emateko; gure kontzertuetara ez datozen baina profil sozioekonomiko eta adina duten ikusle xedeei gure jarduerak eskaintzen jarraituko dugu eta, hirugarren, ikusle berriek EOS hobeto ezagutzeko ekintzak sustatuko ditugu, masa kritiko anitzagoa lortze aldera.

Atal honekin bukatzeko, aipatu beharra dago Musika Gelako ikasleen prestakuntza lan garrantzitsua, zeinetan aldika Donostiako Udalarekin ari

garen elkarlanean; eta, bestetik, espero baino matrikulazio gutxiago izan badira ere, Musikenerekin hitzartutako hezkuntza programa berria.

2- Antolaketa-enpresa arloa

Aurreko urteari dagokion lau-urteko memorian (2016/2019) uste genuen arlo honetako punturik garrantzitsuenak aurrekontuen egoera eta Hitzarmen Kolektiboa lortzea zela (zeinaren indarraldia 2016aren bukaerara arte luzatu zen eta berriz ere ari garen negoziatzen): Oraingoan, aldiz, aipatu beharra dago Laneko Zuzendaritza Orokorrari galdetu diogu, hark zalantzan jari baitzuen zuzendariak eta bakarlariak une jakin baterako kontratatzeke modu zuzena merkataritza-kontratua izatea, lan-kontratuaren orde. Ondorioz, aurrekontuetan aldaketak egingo lirateke “zuzendariak, bakarlariak eta abesbatzak kontratatzeke pertsonal-gastuak” atalean, aurrekontuen araudia betetzeko, eta baita gizarte segurantzako kotizazioetan aurreikusi ez diren gastuen areagotzea barne.

2015 urtearen bukaeran gastuaren aurrekontuaren %1ko emaitza positiboa lortu zen, eta horrek aurrekontuak behar bezala kudeatzea dakar: hutsik dauden plazak pixkanaka betetzen joatea, eta ospe eta cachet handiko artistak egoki aurkeztea dira emaitza horren arrazoiak. Bestetik, aurreko zuzendari orokorrek egindako esfortzua sendotuko da enpresa pribatuekin ditugun babes hitzarmenekin jarraitu eta haiek indartzeko.

Alderdi ekonomikoari dagokionez, aipatu beharra dago Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenaren egonkortasunarekin Eusko Jaurlaritzak duen konpromisoa, hari esker, bi urterako plangintza eta hari dagokion kudeaketa egin ahal izango baitugu, bai ohiko gastuei bai inbertsioei dagokienez, baina, gehienbat, pertsonal-gastuen inguruko egonkortasunaren kudeaketa egokia ahalbidetzen baitu (plaza zehatzen estaldurari, aldi baterakoei eta aldiko kolaborazioei begira), orkestraren onerako beti ere, azken finean. EOSren aurrekontuak baldintzatzen dituen gauza bat da haien % 70 pertsonalaren gastuei zuzentzen dela; % 11 zuzendariak, bakarlariak eta abesbatzak kontratatzeke; % 5 Euskal Herriko auditorioak alokatzeke eta gainerako % 15 beste gastuei, beraz, oso

marjina txikia geratzen da finantzazioa behar duten beste ekintzak egiteko, nazioarteko birak edo bestelako proiektuak, non berariazko finantzazioa nahikoa ez den.

3- Berrikuntza-Proiektzioa

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, edo nahi izanez gero, Zuzendaritza honek Zuzendari Titular berriarekin batera planteatzen dituen arreta-eremu nagusiak, erronka berriak dira, zeinak iaz hemen adierazten diren erronkei gehituko diegun: lehenengo, orkestraren etengabeko hobekuntza, taldeari arreta ematea, hura motibatzea eta atal bakoitzak eduki ditzakeen arazoei konponbidea bilatzea; bigarren, kontzertu-zikloa maila altuko ziklo gisa mantentzea, nazioarteko artista onenak kontratatzen; hirugarren, Euskadiko beste erakundeekin lotura hobetzea ikusle berriei heltzeko; laugarren, estrategia berrien garapena nazioarteko mailan ikusgarritasuna emateko, eta, bosgarren, atzerrian birak eskaintzea egindako lana erakutsi eta Euskadiren kultur enbaxada bihurtzeko. Horrekin lotuta, gazteenentzako baliabidea izan behar dugu eta IKTek jende gehiagora iristeko ematen dizkiguten aukerak hausnartu behar ditugu. Hori guztia lortzeko, ezinbestekoa da EOSk bikain egiten duen lan loteslearen garrantzia abalatzten duen Eusko Jaurlaritzaren konpromiso politikoa.